

BALIO PROPOSAMENA

Noizbait gertatu al zaizu, leku batera joateko beharra duzula eta zure txakurra ez daukazula non edota norekin utzi? Edo, ez daukazula denbora gehiegi txakurrari arreta nahikoa emateko? Gu G.LLONS taldea gara, eta zuen txakurren zaintzaz arduratuko gara *Happy Dogs* txakur zainketa lekuan. Bertan, truko desberdinak eta hainbat gaitasun berri irakasten dizkiegu. Ondorioz, lan egitera edo bidai bat egitera lasai joan zaitezke zure txakurra gure hotelean uzten baduzu.

Gure lan gunea Listorretan kokatuko da. Gunea bi eraikinetan banatuta dago, bata bestearen ondoan kokatuta dagoena; hotela eta eguneko zentroa. Hotelan, txakurren jabeek haien txakurra bertan utzi dezakete eta bitartean bertako langileak txakurrak zainduko dituzte hainbat egunez: hauei elikatuz, paseoak emanez, haiekin jolastuz, hauek garbitu, hauei trikimailuak irakatsi eta edozein txakurra jarrera agresiboa duenari kontrolatu.

Eguneko zentroa, berriz, hiru guneetan banatuta dago. Zonalde bakoitzak txakur tamaina bakoitzari dagokio, hau da, txakur txikiak, ertainak eta handiak. Hau horrela banatu dugu txakurren artean istilurik ez izateko eta errazagoa delako haientzat beren tamainako txakurrekin erlazionatzea. Hemen, txakurren ikarakasketetan zentratzen gara. Adibidez, jabeak ez dutenean haien txakurrak irakasteko denbora, gu izango gara txakurrei irakatsiko diegunak (trukoak, portaerak etab.).

Albaitaritza-talde bat ere badugu, eta hauen funtzioa animaliei (kasu honetan txakurrak) eragiten dieten gaixotasunak diagnostikatzea, iragartzea, tratatzea eta prebenitzea izango da. Kastrazioa eta ospitalizazioa egiteko aukera ere izango da.

Gure zerbitzuarekin, txakur jabe guztiengana iritsi nahi dugu, haiei gure laguntza edota zerbitzuak eskaintzeko beraien bizitza errazteko.



